

# Euskalgintza sindikalgintzan txertatu (IV)

**Ipar Euskal Herriko  
instituzio  
egituraketa  
eta hauteskunde  
sistema**



**ENEKO BIDEGAIN**



## Eneko Bidegain

Baionan sortu zen 1975ean. Berria egunkariko kazetaria eta Lapurdiko arduraruna da. "Anbroxio" eta "Mahatsaren begia" eleberriak eta "Euskal esaerak" liburuak argitaratu ditu. Saiakeran ere aritu da eta kaleratu dituen lanen artean aipagarrienetakoa "Iparretarrak, erakunde politiko armatu baten historia" Bertsogintzarako eta euskal kulturarekiko duen zaletasuna nabaria da eta Euskal Herriko azken bertsolari txapelketan epaimakide izan zen.

## AURKIBIDEA

Aurkezpena . . . . .	3
Sarrera . . . . .	4
Hainbat xehetasun . . . . .	4
Frantzia, Akitania, Pirinio Atlantikoak . . . . .	6
Presidentziarako hauteskundeak . . . . .	7
Legebiltzarra, gobernua . . . . .	9
Prefeta, suprefeta . . . . .	10
Departamendua, Kontseilu Nagusia . . . . .	10
Kantonamenduen ordezkariak . . . . .	12
Notabilismoa, klanismoa . . . . .	15
Hegoaldean Iparradeko sistema balitz . . . . .	15
Eskualde Kontseilua . . . . .	16
Udalak . . . . .	17
Herri elkargoak . . . . .	19
Frantziaren politika . . . . .	19
Galderak . . . . .	20

© Liburusk honetan jasotzen den testua egilearen jabegepean dago.

Argitalpena: Manu Robles-Arangiz Institutua  
Barrainkua, 13  
48009 BILBO  
www.mrafundazioa.org

Inprimaketa: Bilbo Graf (Bilbo)

ISBN: 978-84-935380-8-8

Lege gordailua: BI-708-08



MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

# Aurkezpena

*Ipar Euskal Herriko instituzio egituraketa eta hauteskunde sistema zertan den plazaratzen dugu "Euskalgintza sindikalgintzan txertatu" sailleko 4. ale honetan, Eneko Bidegainek Iruñako Baluartan 2006ko maiatzaren 11n eman zuen hitzaldiaren harira.*

*Eneko Bidegain Berria egunkariko kazetaria eta Lapurdiko arduraduna da. Idazlea ere bada. Duela 32 urte sortu zen Baionan, eta bertan bizi da.*

*"Ambrosio" eta "Mahatsaren begia" eleberriak eta "Euskal esaerak" liburua argitaratu ditu. Saiakeran ere aritu da, eta egin dituen lanen artean nik bat aipatuko nuke, "Iparretarrak, erakunde politiko armatu baten historia".*

*Xalbador bertsolari handiaren biloba da. Eta behar bada hortik datorkio bertso gintzarako eta euskal kuturarekiko zaletasuna eta maitasuna. Euskal Herriko azken Bertsolari txapelketan epaimahaikide izan zen.*

*Baina Eneko ez zen Iruñeko hitzaldira joan idazle, bertsozale edota kultur-aditu gisa. Berak, kazetaria denez, bere eguneroko lanean aktualitatearen jarraipen zehatza egiten du. Eta informazioa emateaz gain, Iparraldean ezagutzeko eta hangoaz hausnartzeko egiten dituen analisiak irakurtzea ezinbestekoa da nire irudikoz.*

*Oso interesgarria izan zen Enekok bere mintzaldian eskaini zizkigun hainbat datu eta egituraketa politikoari buruzko hainbat xehetasun, ofizialki existitzen ez den Iparralde bati buruz.*

*Azken bi urte hauetan Iparraldean eta Estatu frantsean burutzen ari diren hainbat erakundetako hauteskondeen nondik norakoak aurkezten dizkigu lan honetan; Hegoaldean ezagutzen dugun hauteskunde sistemarekin ezer ikustekorik ez duen sistemaren arabera egiten dira.*

*Egoera zein den ezagutu, azterketa egin eta etorkizunera begira Ipar Euskal Herrian ere demokratikoki borrokatu beharrekoak ikusten lagunduko digu Enekok esandakoak.*

**Fernando Iraeta**

Manu Robles-Arangiz Institutua  
fundazioaren zuzendaria

---

Hitzaldi hau 2006ko maiatzaren 11n eman zuen Eneko Bidegainek Iruñeko Baluartan.

## Sarrera

Hitzaldi honen bidez azaldu nahi nuke nola egituratua den Ipar Euskal Herriko boterea, boteretik baldin badu behintzat. Ipar Euskal Herriak berezko instituziorik ez izatearen ondorioz bera gobernatzen duten erakundeak zeintzuk diren azalduko dut, Ipar Euskal Herriaren dependentzia maila ulertu ahal izateko.

Lehenik, botere gune horiek zein diren, nola egituratuak diren eta ordezkariak nola hautatzen ditugun azalduko dut. Inportantea iruditzen zait hori esplikatzea, ez baitu deus ikustekorik Hegoaldean ezagutzen duzuen hauteskunde sistemarekin. Eta modu desberdin horrek politika egiteko beste modu bat ere eragiten du. Demografiarekin ere lotua da, baina bistan da hauteskunde sistemak zeri-kusi zuzena du.

Bukaera aldera, Ipar Euskal Herriko aldarrikapenen aintzinean – bereziki instituzio onarpenaren eskaeraren aintzinean – Frantziak nolako portaera duen komentatu nahi nuke, eta boteretik ez duten erakundeak sortuz, nola asmatu duen aldarrikapen horiek ezitzen. Pentsatzen dut hori guztia aipatzea interesgarria izanen dela gaur egun Euskal Herrian irekitzen ari den prozesuari begira.


### Hainbat xehetasun

Beraz hasi aintzin, horra zenbait xehetasun Ipar Euskal Herriari buruz. Euskal Herriko hamar biztanleetatik bat – bat baino pixka bat gutxiago – bizi da Ipar Euskal Herrian. Euskal Herrian kasik hiru milioi biztanle baldin badira, Ipar Euskal Herrian 260.000 gara. Azpimarratu behar da kasik biztanle guztiak Lapurdin bizi direla, kasik 220.000 biztanle, 2001eko datuen arabera. Urtetik urtera, Baxenabarre eta Zuberoa husten ari dira, eta Lapurdin geroz eta jende gehiago bizi da. Lapurdin bizi diren biztanleen erdia, berriz, hiru herri nagusietan bizi da: Baiona, Angelu eta Miarritze (BAM). Hiru herri horien artean 110.000 biztanle bizi dira.

Beraz ikusten da Ipar Euskal Herriaren biztanlegoa non kokatua den nagusiki. Indar banaketa ere hor ikusten da. Abertzaleek indarra badute Baxenabarren, baina BAM deitzen dugun eskualde horretan %5 baino gehiago lortzea zaila dute, eta egoera linguistikoan ere nabari da horren ondorioa... Nahiz eta euskal hiztun ainitz baden Baionan, Angelun eta Miarritzen, %10 dira euskara mintzo dutenak eremu horretan. Eta gazteetan, % 1. Eremu horretan bizi da

---

Ipar Euskal Herriko euskaldun gehiena, eta beraz biziki inportantea da hori kontuan hartzea, zeren eta eremu horretan diseinatzen baita etorkizuneko Ipar Euskal Herria. Eta hor ikusten dugu mundu erdalduna zein hedatua den.



Adibide bat. Zuberoan 15.000 biztanle dira, eta antzera dira Donibane Lohizunen. Donibane-Lohizune ez da Lapurdiko hiri jendetsuena. Hendaia, adibidez, jende gehiago badu. Datu horiek inportanteak dira Ipar Euskal Herriko euskaltasunaren eta abertzaletasunaren indarrak non kokatuak diren ulertzeko.

Pirinio Atlantikoak departamentuaren eremuaren heren bat okupatzen du, gutxi gorabehera, Ipar Euskal Herriak. Departamentu horren hiri nagusia Paue da. Paue geratzen da departamentu horren ekialdean, beraz Ipar Euskal Herriko oso urrun. Baina hortik gobernatzen da Pirinio Atlantikoetako politika. Kontseilu Nagusia da Pirinio Atlantikoak gobernatzen dituen erakundea, eta horren egoitza nagusia Pauen da, nahiz eta egoitza bat baduen Baionan.

Aipatu behar da departamentuak bigarren mailako hiriak ere badituela. Suprefeturak deitzen dira. Baxenabarre eta Lapurdi, administratiboki, Baionari lotuak zaizkio, eta Zuberoaren zati nagusia Oloroeri. Oloroe Biarnoko herri bat da. Beraz horretan ere zatiketa administratibo bat badugu, non Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetatik bi Baionara begira dauden eta bestea – Zuberoa – Biarnora be-

gira. Horrek bere kalte eta ondorioak ditu. Ez dut hori asko sakonduko baina bi adibide emango ditut.

Udalekuetara haurrak eraman nahi dituen familia batek diru laguntzak baditu, baina Mauleko familia batek bere haurra euskarazko udaleku batera eraman nahi badu eta udaleku hori Baionan baldin bada, ez du diru laguntzarik ukanen, ez baita Oloroeko administrazioaren esku den eremu batean. Azkenean, Zuberoko euskaldunentzat, beren sakelean sentitzen da zatiketa administratibo horren ondorioa.

Eta beste adibidea, kazetaritza arlokoa da. Ipar Euskal Herriko egunkari nagusia eta hedatuena Sud Ouest da, eskelak ematen dituen, herrietako berri xeheak ematen dituen eta abar. Tokiko egunkari deituko dugu. Horrelakoak denetan dira. Nagusitasun osoa dute. Baina egunkari hau ere zatiketa administratiboaren arabera antolatuta dago. Beraz, Ipar Euskal Herri osoko berriak eduki nahi badira, bi edizio erosi behar dira, "Euskal Herrikoa" eta Zuberora eta Biarnokoa.

### **Frantzia, Akitania, Pirinio Atlantikoak**


Horrekin azaldu nahi dut departamentuak Ipar Euskal Herria administratiboki nola zatikatu duen. Ez da bakarrik Ipar Euskal Herriak ez duela lurraldetasun ezagupenik eta eremu zabalago baten barruan itoa dela, baizik eta eremu horren barneko zatiketa administratiboak ere ukatzen duela Ipar Euskal Herriaren izaera.

Eta geroago, mapa batean erakutsiko dut Kontseilu Nagusiak nola zatikatu duen garapen ekonomikoa, eta baita ere Ipar Euskal Herriaren lurraldea nola egituratua den, gaur egun, garapen plan horien arabera. Eta adierazgarria da herrialde historikoak ez direla kontuan hartzen.

Ipar Euskal Herria erakunde handiago baten barne ere bada: Akitania. Hori da eskualdea edo erregioa. Beste instituzio bat da, departamentuak ez dituen eskumen batzuekin. Beraz Pirinio Atlantikoak Akitaniaren barne dira. Beraz Ipar Euskal Herria ere Akitaniako parte da, eta horko hiri nagusia Bordele da, Akitania iparraldean. Hori da gure bigarren hiri nagusia. Paue da lehen hiri nagusia, Baionak ez baitu hiri nagusi estatuturik. Baiona da hiri nagusia Ipar Euskal Herriarentzat, baina hori sinbolikoa da. Pauek du lehenbiziko hiri nagusi kargua, hurrengo hiri nagusia Bordele da. Baina, benetako hiri nagusia Paris da, Frantzia estatu zentralizatua baita, eta boterea Parisen zentratzen baita.

---

Piramide batekin azalduko dut boterea nola egituratua den. Lehen graduan ditugu udalak, hurbilekoak. Geroago aipatuko dut udal elkargoak zer diren. Udalek elkarren artean sortzen duten administrazio mota berri bat da udal elkargoa. Geroz eta udal politika gehiago udal elkargoek bideratzen dituzte.



Bigarren graduan dugu departamentua. Honek administrazioko gauza asko kudeatzen ditu. Eskualdeak edo erregioak ditu beste eskumen batzuk, baina pixka bat urrun gelditzen da. Udalak eta departamentuak hurbil geratzen zaizkigu, baina Erregioa pixka bat urrun. Egitura nahiko berria da, eta pixka bat galdua gelditzen da departamentuaren eta estatuaren artean.


Azken finean, Estatua da erabaki guztiak hartzen dituen. Eta beste egiturek, departamentuak eta erregioak, kudeatzen dituzten gauzak estatuak utzi dizkien eskumenak dira, baina haien autonomia maila oso mugatua da.

Azkenik, piramidearen behealdean jarri ditut, Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua. Bitxia da horrelakoak Ipar Euskal Herrian soilik ematen baitira. Jende oro biltzen da horietara, baina erabakitze ahalmunik ez dute.

### **Presidentziarako hauteskundeak**

Frantziako estatua Errepublikak bat da, 1789tik hona. Hautesleek hautatzen dute Errepublikako presidentea. Hauteskunde inportan-

teenak horiek dira, eta Frantziako egutegi politikoa beti hauteskunde presidentzialetara begira dago. Gaur egun, boterean den talde politikoan, sekulako kalapitak dituzte datorren urtean izango diren hauteskunde presidentzial horiei begira. Piramidearen goikaldean pertsona bakarra da, eta politiko handi horien amtsa horra heltzea da. Alderdi politiko bakoitzetik bakarrak lortuko du horra aurkeztea. Gertatu izan da talde politiko beretik bi aurkeztea ere, baina sekulako barne borrokak izan ohi dira, kupidarik gabeak.



Bost urteko egutegia askotan horren arabera finkatzen da. Hori ere zentralismo horren adierazlea da. Anitz pertsonalizatzen da, alderdi osoaren baitan baino, pertsona batengan zentratzen da, eta horrek bere kalteak baditu. Gatazka horien ondorioz bitxikeriak gertatzen dira alderdi politikoaren artean.

Garrantzitsua da erratea presidentea nola hautatzen den. Bi itzuli izaten dira Frantzian. Lehen itzulian nahi duten guztiak aurkez daitezke, eta lehen itzulian boz gehien eskuratu dutenak pasako dira hurrengo fasera. Bigarren itzulian gehiengo absolutoa lortzen duena izango da presidente.

Eta bitxikerietan zer gertatzen da? Adibidez, duela lau urte, eskuin muturreko hautagaia bigarren postuan iritsi zen, eta beraz es-



kuineko eta eskuin muturreko hautagaien arteko lehia izan zen bigarren itzulian. Eta hautu bat egin behar da. Hori da proposatzen zaiguna. Lehen itzulian zure hautagaia ez bada hurrengo itzulirako atera, zer egin behar da? Bigarren itzulian zuk nahi ez duzun baten alde bozkatzeko erraten zaizu. Horrelako hauteskunde batean, burukomin ainitz sortu zigun egoera izan zen. Nola bozkatu Euskal Herria zapaltzen duen eskuinaren alde? Baina nola utzi faxismo garaikide oso arriskutsu bat indartzen, zure abstentzioaren bidez?

### **Legebiltzarra, gobernua**

Gero hautatzen ditugu diputatuak. Diputatuak ere sistema beraren arabera hautatzen dira. Eskualdeka. Bost ehun eta piku diputatu dira Frantzian, eta diputatu bat dagokio eskualde bati. Departamentuan, Pirineo Atlantikoetan, sei diputatu daude, sei eskualdetan banatuak. Ipar Euskal Herriari bi eskualde eta erdi dagozkio. Bada bat Baiona, Angelu eta Lapurdi iparraldekoa, beste bat Lapurdi hegoaldekoa eta beste bat Baxenafarroa-Zuberoa eta Biarnoko zati bat hartzen dituen. Beraz Ipar Euskal Herrian bi diputatu edo hiru diputatu ditugu. Gaur egun, barnealdeko hautesbarrutiko diputatua biarnesa da, ez da Ipar Euskal Herrikoa, baina duela gutxi arte, hogeita hamar urtez, Euskal Herrikoa izan zen.

Eta nola hautatzen da? Hor ere eskualde bakoitzean diputatu bat hautatzen dugu, presidentzialetako sistema berarekin. Bi itzuli egin dira. Lehenengo itzulian boto gehien jaso dutenak bigarren itzulian aurkezten dira. Bigarren itzulian boto gehien lortu duena bihurtzen da diputatu.

Horren ondorioa zein da? Legebiltzarrean beti alderdi indartsuenek dutela gobernatzen. Batean izango da eskuina, bestean ezkerra... Alde horretatik, beti aldatzen da. Baina, adibidez, ekologistek hautetsi oso gutxi dituzte, baita komunistek ere. Minorian direnak eta bigarren itzulira heltzeko – beraz, hauteskundeak irabazteko – aukerarik ez dutenak baztertuta geratzen dira, ez dute kasik diputaturik.

Eta honakoa gertatu izan da: Legebiltzarra diputatuek osatzen dute eta horren arabera hautatzen da gobernua. Errepublikako presidentek lehen ministro bat izendatzen du, baina legebiltzarra zer nola osatuta dagoen kontuan hartuz. 1995ean Chiracek (eskuinak) irabazi zituen presidentzialetako hauteskundeak. Baina bi urteren buruan legebiltzarra desegin zuen, hauteskundeak berriz egin ziren

eta ezkerrek irabazi zituen. Eta orduan, legebiltzarra ezkerrekoa baldin bada, gobernua ere ezkerrekoa izango da.

Lehen ministroak izendatzen ditu ministroak, eta horrekin osatzen da Gobernua. Zinegotziek, kontseilari nagusiek eta eskualde kontseilariak senatariak hautatzen dituzte. Senatariak ez ditugu hautesleek hautatzen, baizik eta hautetsiek. Bigarren graduko hauteskundeak dira.

### **Prefeta, suprefeta**

Inportantea da prefeta eta suprefeta aipatzea, bereziki Ipar Euskal Herrian garrantzia handia dutelako. Hauek dira Estatuaren ordezkariak Ipar Euskal Herrian. Prefeta Pauen da, eta suprefetak Oloronen eta Baionan dira. Hauek dira Estatuaren eta Errepublikaren balioen zaindari lana egiten dutenak.

Zaindari lana nola ikusten dugu Ipar Euskal Herrian? Adibidez, prefetak euskal departamenduaren aldeko taldeari diru laguntza eman dieten udalak auzitan ezarri ditu, hori ez zela udalen funtzioa erranez. Gogor egin du Euskal Herriko laborantza ganberaren aurka ere, erranez departamendu batean Laborantza ganbera bakarra dela eta ez dela legezkoa horrelako beste egitura bat sortzea. Eta Laborantza Ganberaren aldeko diru laguntza onartu duten udalak ere auzitegi administratiboan ezarri ditu. Beraz, Errepublikaren balioen zaindari lan hori egiten du, eta momentu batean Errepublikaren batasun horrenganako mehatxu txiki bat ikusten badu, lan erreprentatibo egiten du. Prefetak eta suprefetak, duela hogeita hamar urte, anitzez indar gehiago zuten, baina gaur egun ere erabiltzen dute euren indar hori, Frantziaren batasuna arriskuan ikusten baldin badute.


### **Departamendua, Kontseilu Nagusia**

Departamendua aipatu nahi nuke orain. Pirineo Atlantikoak ditugu boterea duen erakundea, udaletatik gertuen duguna. Departamendua da lurralde hori, baina departamentua gobernatzen duen erakundea Kontseilu Nagusia deitzen da. Kontseiluak berrogeita hamairu kide ditu, berrogeita hamairu kantonamendu direlako departamenduan. Hor ere, diputatuak izendatzen ditugun bezala, eskualde bakoitzak hautatzen du bere ordezkaria Paura joateko. Berrogeita hamairu kantonamendu dira Pirineo Atlantikoan, eta hogeita hamar kantonamendu ditu Ipar Euskal Herriak. Beraz erdia baino gutxiago. Ipar Euskal Herria beti minorian da departamendu horretan.

---

Kontseilari nagusiak dira, departamenduko kargu politikoa dutenak. Kantonamendu bakoitzetik bat. Sei urterako hautatuak izaten dira baina ez dira denak hauteskunde beretan hautatzen. Hiru urtetik behin egiten dira kantonamenduko hauteskundeak. Hauteskunde bakoitzean, jende erdia berritu egiten da. Adibidez, Garaziko kantonamenduan hauteskundeak direnean, Baigorrikoan ez dira. Hiru urte geroago Baigorriin egingo dituzte, baina Garazin ez.

Hauteskunde horiek ere bi itzulitan iragaiten dira. Lehen itzulian denak aurkezten dira, eta bigarren itzulian irabazle bakarria izaten da, eskualde horren ordezkari.



Departamenduaren eskumenak aipatuko ditut lehenik. Bitxia da: departamendua eskatzen da baina eskumenak pixka bat mugatuak ditu. Aurrekontuari aski zaio begiratzea. 2004ko aurrekontua hartu dut, baina proportzioak berdintsuak dira beste urteetan ere. Aurrekontuaren erdia Elkartasunera joaten da. Elkartasuna da departamenduaren betebeharrak, hau da, zahar etxeen kudeaketa, edo zaharrak etxetan laguntzea, elbarrituak laguntzea, familiak laguntzea, gutxiengo errentak banatzea (aspaldian langabezian bizi direnei ematen zaien diru laguntza txiki bat da). Hori departamenduaren esku dago. Norbait egoera horretan baldin bada, departamendua ordaindu egin behar du. Zaharrak lagundu behar badira, egin egin behar du.

Aurrekontuaren beste zati handi bat azpiegiturretara doa, bereziki errepideetara, errepideak berritzeko edo berriak egiteko.


Geratzen dena garapen ekonomikora doa, edo irakaskuntzan inbertitzeko, edo garraio publikoan, kulturen eta abar.

Departamenduak, azken finean, ez du politika handirik egiten, baizik eta kudeaketa lana. Ez du legeak egiteko eskumenik. Beraz ez da erronka politiko handirik. Ezkerra edo eskuina izan buru, ezberdina da, politika sozial ezberdina egingo dute. Lehenetsun ezberdinak jarriko dituzte, baina departamenduko bizi eta eztabaida politikoa, horretara mugatzen da. Eztabaida politikoa, legeak, gai sozialak, etorkizuneko gaiak... legebiltzarrean eztabaidatzen dira.

Hala ere euskal departamenduaren aldeko erronkak inportantzia handia du. Ez departamenduak ekarriko liokeen autonomiari begira, ez baitio gauza handirik ekarriko, baina bai lurraldetasun ezagupen horri begira. Lurraldetasun ezagupenerako lehen urratsa departamendua da.

## Departamendua : kantonamenduak

1. Baiona iparraldea
2. Baiona ekialdea
3. Baiona mendebaldea
4. Angelu iparraldea
5. Angelu hegoaldea
6. Miarritze mendebaldea
7. Miarritze ekialdea
8. Donibane Lohizune
9. Hendaia
10. Ezpeleta
11. Uztaritze
12. Hiriburu
13. Hazparne
14. Bastida
15. Bidaxune
16. Amikuze
17. Maule
18. Atharratze
19. Garazi
20. Baigorri
21. Heleta



### Kantonamenduen ordezkariak


Kantonamenduak aipatu ditut lehen, eta mapa honetan erakutsiko dizuet nola banatuak diren. Kantonamendu batzuk nahiko naturalki osatuak dira, bizi eremu baten arabera. Beste batzuk oso artifizialak dira baina... Horrela eginga da zatiketa administratiboa, baina kantonamendu batzuek ez dute errealitateirik. Baionak hiru

kantonamendu ditu: Baiona ekialdea, Baiona iparraldea eta Baiona mendebaldea. Baina, adibidez, nik ez dakit Baionako zein kantonamendutan bizi naizen. Kantonamenduko hauteskundeak direnean etxera etorriko zait agiria, eta orduan jakinen dut zeren alde bozkatu dezakedan. Orain ez naiz gogoratzen ekialdean ala mendebaldean naizen. Eta ez du inporta, ez du errealitaterik. Angelu bi kantonamendutan zatitua da: iparraldea eta hegoaldea. Baionan bezalatsuko arazoa da. Miarritze ere berdin: ekialdea eta mendebaldea.

Beraz, BAB eskualde horretan zazpi ordezkari aukeratzeko dira, hau da, hogeita batetik zazpi, heren bat.

Beste kantonamenduak dira: Donibane-Lohizune, Hendaia, Ezpeleta, Uztaritze, Hiriburu, Hazparne, Bastida, Bidaxune, Maule, Baigorri, Atharratze, Garazi, Baigorri eta Heleta. Hauek dira kantonamenduak. Kantonamendu bakoitzak bere kontseilari nagusia du.

Kantonamenduak errealitate bat edo erranahi bat badu barnealdean. Adibidez Baigorriko kantonamenduan badakite zein den euren ordezkaria Paueko kontseiluan. Pertsonalitate batzuk dira, baina hirian ez dute izaerarik.



Nola hautatzen ditugu kantonamenduko ordezkariak, hala nola kontseilari nagusiak? Lehen itzulian badira horrenbeste hautagai. Batzuetan sei izango dira, baina hamaika ere izan daitezke. Hirian

alderdi politiko bakoitzak hautagai bat aurkezten du, beraz asko dira, hamar edo gehiago, kantonamendu bakoitzean. Baina barnealdean gutxiago.

Aurreko hauteskundeetako barnealdeko kantonamendu baten adibidea hartu dut. Sei hautagai ziren, eta ehuneko hamar gaindizten zutenek bigarren itzulian aurkezteko aukera zuten. Beraz, kantonamendu horretan lau hautagaiek zuten bigarren itzulira pasatzeko aukera. Bigarren itzulian ez aurkezteko aukera ere badute. Laugarren gelditu zenak ez zuen bigarren itzulian irabazteko aukerarik. Lehen itzulian irabazle izan zenak bozen %40 lortu zuen, eta aukera handiak zituen bigarren itzulian irabazteko. Bigarren itzulira bi aurkeztu ziren, eta emaitzak ez ziren anitz aldatu. Baina zenbait kasutan juxtuago ibil daitezke. Gerta daiteke bi hautagai elkarrengandik oso hurbil ibiltzea, eta beste hautagai baten botoak erabakigarriak izatea hauteskundeak irabazteko.

Orduan zer gertatzen da? Lehen itzulian denak etsaiak dira, eta bigarrenean, batek irabazteko aukerak dituenean, gauzak aldatzen dira. Baionan gertatu zen hori. Baionan hautetsi gehienak eskuinekoak izaten dira, baina duela bi-hiru urte ezkerreko hautagaiek irabazi zituzten. Zer gertatu zen? Lehen itzulian eskuineko eta ezkerreko hautagaiek biziki hurbil ziren emaitzetan. Biek irabaz zezaketen bigarren itzulian, eta orduan zer egiten dute? Bigarren itzulian %50 lortu behar dute, beraz batuketak egiten hasten dira. Lehen itzulian %30 baldin badute, bigarren itzulian %20 gehiago behar dute. Beraz lehen itzulian beste baten alde bozkatu duten horiengana jotzen dute boto eske. Hori gertatu zen Garazin. Bigarren itzuliko hautagaiei zenbait galdera egin zizkioten abertzaleek: Donibane-Garazin egingo duzu Ikastola bat? Presoen hurbiltzearen alde zaudete? Denek baietz erantzun zuten. Bi hautagaiek, alegia. Erran nahi baita: hauteskundeak galtzeko edo irabazteko zoria dutenean, abertzaleekin oso eskuzabalak dira. Abertzaleek lortu dutena ez da boterean izatea, baina boterea nahi duenari, bere helburua baldintzatzea. Sistema horrek hori eragiten du. Azkenean bigarren itzulia bihurtzen da zure jarraitzaileak ez direnen sedukzio kanpaina bat. Gezurrean oinarritzen da askotan baina... horrela jokatzeko da.

Gertatu izan da abertzale batek hauteskundeak irabaztea. Baigorri gertatu zen duela bost urte. Ordurarte hautetsi zen pertsonak ez zuen karguan segitu, eta hautetsi berria izan zen. Horrelakoetan, aukera ikusten denean, beste hautagaiek aprobeixatu egiten dute. Eskuineko tendentzietan askok nahi izaten dute kargu hori lortu, baina Baigorri zer gertatu zen? Hiru hautagaiek nahiko emaitza

onak lortu zituzten. Horietako bi eskuin independenteak ziren eta bestea abertzalea. Eskuineko bi horiek nahi zuten lortu garaipena. Inork ez zion besteari lekua uzten. Bigarren itzulian, biak aurkeztu ziren, abertzalearekin batera, eta hautagai abertzaleak boto gehiago lortu zituen.

### **Notabilismoa, klanismoa**

Donibane Garaziko fenomenoak aipatu nahi nuke, bereziki adierazgarria delako Ipar Euskal Herriko politika ulertzeko. Kontseilari nagusia Mixel Intsauspe izan zen. Pertsonalitate inportantea zen, banku baten jabea. Bankuaren bidez, maileguak onartzen zizkien laborarieri. Botoak erosteko balio zien horrek. Kontseilari nagusiak gazte bati soldaduskara ez joateko baimena emateko aukera bazuten. Maiz, barnealdean, kontseilari nagusiek ez dute politikaren bidez lortzen beren aulkia, baizik eta familiei egindako zerbitzuei esker. Urte batez, Garaziko kantonamenduko hautagai abertzale baten sekulako emaitzak lortu zituen. Ez zen kasualitatea. Denek ezagutzen zuten. Haren alde ez zuten bozkatu abertzalea zelako, pertsona ezaguna eta maitatua zelako baizik.

Sistema horrek eragiten du halako notabilismo bat, klanismo bat. Intsauspe berrogei urtez egon zen kontseilari nagusi bezala Garazin. Beti haren alde bozkatzeko zuten. Ez haren ideia politikoengatik. Horregatik ere bai, baina pertsonagatik gehiago. Edo, bestela, hautetsi horiek oso ezagunak dira, ostatuan ibiltzeagatik. Erregularki ordaintzen dizkiete tragoak herritarrei. Baigorriko kontseilari ohiak, adibidez, sekulako mozkorrak biltzen zituen.

Azken finean hara nola egiten den politika Ipar Euskal Herrian, bereziki barnealdean. Kostaldean desberdina da, politizatuagoa da.

### **Hegoaldean Iparraldeko sistema balitz**

Orain buruari eragiteko ariketa bat egin dut. Galdera bat egingo dizuet. Imajinatu Hego Euskal Herrian horrela izendatzen dituzue la zuen ordezkari politikoak. Imajinatu nolakoa litzatekeen Nafarroako parlamentua. Zuek biziko zarete eskualde txiki batean eta hor batek irabaziko du. Nik ariketa txiki bat egin dut iazko hauteskundeak hartuz. Gipuzkoako kasua hartu dut. Gipuzkoan hogeita hiru eskualde kalkulatu ditut. Donostia eskualde bat bezala hartu dut. Hogeita hiru eskualde balira – eta banan bana zenbatu ditut balizko eskualde bakoitzaren emaitzak – eta bi itzuliko sistema balitz, hogeita hiru eskualdetatik lau eskualdetan lehen itzulitik hautatua

izanen zen hautetsia, alegia, EA-EAJ koaliziokoa. Eta gainerako eskualdeetan bigarren itzuli baten premia legoke. Kasu gehienetan EA-EAJ, PSOE eta EHAKren artean izango zen. Imajinatu horrelako bigarren itzuli bat. Nola pasako litzateke? Nor joanen da besteen botoen bila? Azkenean aukera gutxi legoke, zeren kalkuluak egin baitituzte. Hogeita hiru aukietatik hemezortzi EA-EAJk segurtatuak litzuzke. Eta beste bostetan ere, baldin eta PSOE eta PP ez balira ados jartzen, EA-EAJrentzat lirateke. Ados jartzen badira ere berdintsu...

Beraz, hemezortzi eta hogeita hiru eskualderen tartean, EA-EAJk irabaziko luke, eta sozialistek bost ukanen litzuzkete, edo agian bat ere ez. Eta esango duzue: beraz besteak ordezkaririk gabe? Bada, bai. Beraz, gogoeta bat: gaur egun udal hauteskundeetan ezker abertzaleko zerrendak hautetsirik gabe geratu dira eta galdeetzen da: eta hori? Ipar Euskal Herriko sistema balitz, hala litzateke. Ez da sistema proportzionala beraz %50 gainditzen ez dutenak kanpo geratzen dira. Minoriek ez dute zer eginik, ez dira existitzen. Gehiengo duzu edo ez zara ezer. Gogoeta interesgarria da demokraziaren eredu den Frantzia gauzak nola diren ikusteko.

Izango ditu bere alde onak: hauteskundeak bukatu ondoren ez dute buruhausterik gobernu koalizioak egiteko. Tratuak aurretik egiten dira. Hori egiten dute, adibidez, sozialistek komunistekin eta berdeekin. Baionako iparraldeko kantonamenduan, adibidez, azken sei urteetan komunista zen hautetsi. Hasierako itzulian hautagai komunistak sozialistak baino boto gehiago lortu zuelako, sozialista erretiratu egin zen eta hautesleei eskatu zien hautagai komunistaren alde bozkatzeko. Eta aurreko aldian, alderantziz gertatu zen, alegia, sozialistek komunistek baino boto gehiago lortu zutela. Dudak sor daitezke sistema horren balio demokratikoari buruz.

### **Eskualde Kontseilua**

Laburki aipatuko dut Akitaniako erregioa. Eskualde kontseilu bat dugu. Hor ere hauteskunde bidez hautatzen dira ordezkariak. Bost departamendu dira eta laurogeita bost kontseilari. Pirinio Atlantikoei hemezortzi ordezkari dagozkie, eta horietatik zazpi Ipar Euskal Herrikoak dira, gaur egun. Ipar Euskal Herriak ez ditu zazpi ordezkari, hala dagozkiolako. Hauteskunde sistema ezberdina da. Zerrendak aurkezten dira, hau da, Pirinio Atlantikoetarako hemezortziko zerrenda osatzen da. Zerrenda horretan posible dute izatea denek Biarnokoak edo denek Ipar Euskal Herrikoak. Gehienetan alderdi nagusiek orekatu egiten dute, notabilismoak duen garrantzia dela-eta. Baina ikusten denez, oreka Biarnesen aldera eror-



tzen da. Hamaika ordezkari dira Biarnokoak, eta Ipar Euskal Herrikoak zazpi. Beren zerrendetan postu gorenetan zeudenak Biarnesak ziren. Alderdi sozialistak agian zortzi hautetsi izango zituela kalkulatu zen. Zer egin zuten? Euskal departamenduaren aldeko kideak zerrendako azken postuetan jarri. Euren alderdiko barne borroka baten ondorio izan zen hori. Gero dena konpondu zuten, hala ere, eta behin betiko zerrendan pixka bat orekatu zuten.

Sei urtetik behin berritzen da Kontseilu osoa. Hauteskunde horiek ere bi itzulitara egiten dira, nahiz eta zerrendak aurkeztu. Zerrenda irabazleak bigarren itzulitik landa aulkien gehiengo osoa lortzen du eta hortik aurrera banatzen dira beste aulkian, zerrenda bakoitzak lortu emaitzarekiko proportzionalki.

Gauza bera da udaletan. Adibidez, UMP alderdiak botoen %40 lortu baldin baditu bigarren itzulian, gehiengo osoa badu aulki kopuruari dagokionez. Alegia aulkien ehuneko berrogeita hamarra. Eta gero beste erdia banatzen da proportzioaren arabera.

Beraz alderdi irabazleak gehiengo osoa beti segurtatua du kontseilu horretan. Gauza bera gertatzen da udaletan edo hirietan.

Erregioaren eskumenak labur aipatuko ditut. Bereziki garapen ekonomikoa eta enpleguaren kudeaketa dira eskumen nagusiak, aurrekontuen arabera. Irakaskuntzan ere badu eskumen zabala, bereziki lizoetako ikastetxeen eraikuntzan, hala nola paretetan. Ez ikas edukietan. Hori Estatuaren botere edo eskumen inportanteentako bat da, alegia, zer ikasten den eskolan. Paretak Erregioaren esku dira lizeoetan, eta baita ere unibertsitatearen atalean. Eta garaio publikoek ere badute puntu inportantea.

## Udalak

Udalak aipatuko ditut orain. Ipar Euskal Herrian 159 udalerrri daude. 76 Baxenabarren, 41 Lapurdin eta 42 Zuberoan. Herrien gehiengoak 3.500 biztanle baino gutxiago ditu. Inportantea da hori zehaztea, zeren eta biztanle kopuruak inportantzia baitu. Hauteskundeak sei urtetik behin egiten dira. Zerrendak aurkezten dira. Hauteskunde hauek ere bi itzulitan iragaiten dira. Bigarren itzulian, aulkien gehiengo osoa eskuratzen du boto gehien duen zerrendak. Beste aulkiak proportzioaren arabera banatzen dira. Horrek erran nahi du politika egiteko modua udaletan horrela dela: zerrenda batego gobernaturiko duenez, aulki gehien izango ditu, akordioak ez dira egiten hauteskundeak eta gero, aurretik baizik. Edo bi itzulien artean. Hori ere gertatzen ahal da.

Lehen itzulian zerrenda guztiak aurkezten dira, eta gero bigarren itzulian zerrendek bat egiten ahal dute. Tratuak egiten ahal dira. Hori Miarritzen gertatu izan da duela zenbait urte: bigarren itzulian alderdi zentrista batek tratua egin zuen abertzaleekin, zerrenda negoziatu zuten, eta hauteskundeak irabazi zituzten. Beraz, Miarritzen, abertzaleak gobernu taldean dira, ez dira oposizioan. Ez dira gobernu taldean hauteskundeak irabazi zituztelako, edo behin hauteskundeak bukatuta tratua egin zutelako. Gobernu taldean sartu ziren, hauteskundeak baino lehen negoziatu zutelako beste alderdi batekin. Hori da gobernatzeko aukera bakarra. Abertzaleek bi aukera dituzte: oposizioan hautetsi bat edo bi lortu, edo zerrenda nagusiarekin negoziatu eta gobernu taldean sartu.

Hor ere politika egiteko modua desberdina da. Hego Euskal Herrian akordioak egiten dira hauteskundeak eta gero, eta Ipar Euskal Herrian aurretik.

Eta beste fenomeno bat aipatu nahi nuke zeren eta inportantea da udalerrri gehienak 3.500 biztanletik beherakoak direla jakitea. Lehen aipatu dudan kasua hortik goragoko kopuruak dituzten udalerrietan gertatzen da. 3.500 biztanletik behera ere zerrendak aurkezten dira baina hautesleek ez dute zerrendaren alde bozkatzen, baidarik eta zerrendako kideen alde. Erran nahi du: nik bederetzi izeneko zerrenda bat baldin badut, posible dut zerrenda horretatik batzuk kentzea eta beste batzuk (beste zerrendakoak edota hauteskundeetan aurkezten ez direnak) ezartzea. Beraz, pertsonak dira hautatzen direnak. Bederatzi pertsona hautatu behar dira, baina bozken erdia baino gehiago lortu duten pertsonak bihurtzen dira zinegotzi.

Gehienetan herri txikietan bi zerrenda aurkezten dira, edo bat. Askotan bi. Baigorriko adibidea emango dizuet: Han bi zerrenda aurkeztu ziren. Bat eskuinekoa (independiente), eta bestea abertzaleena. Batek ehuneko hirurogei lortu zuen eta besteak ehuneko berrogei. Nola pertsonak diren zinegotzi bihurtzen – eta ez zerrendaren arabera horrenbeste eta horrenbeste – ehuneko hirurogei lortu zuten hautagai guztiak zinegotzi bihurtu ziren, eta ehuneko berrogeirekin geratu zirenak ez ziren zinegotzi bihurtu. Beraz, berez, Baigorriin kontseilua osatzeko, ehuneko hirurogei zerrenda batekoak eta ehuneko berrogei zinegotzi beste zerrendakoak izan behar harko ziren. Baina ez, hau da, zinegotzi guztiak zerrenda berekoak dira, eta ehuneko berrogei lortu zuten zerrendakoek ez dute zinegotzirik. Hori da sistema. Bitxia ezta?

---

Bitxikeria bat gertatu zen Azkainen. Anekdotak bat da: Hautesleek zerrenda burua kendu egin zuten. Zerrenda buruak, hogeituzetaz auzapez izan zenak, ez zuten lortu bozen erdia, eta beraz ez zen zinegotzi bihurtu ere. Eta zerrenda burua zen! Baina ez zuten behar bezainbat boto bildu eta haren zerrendako beste guztiak pasa ziren aurrera eta zinegotzi bihurtu, baina bera ez.

### Herri elkargoak

Herri elkargoak aipatuko ditugu labur-labur. Gaur egun udalek geroz eta eskumen gutxiago dute, edo udalen eskumenak geroz eta gehiago herri elkargoen esku geratzen dira. Zer da herri elkargo bat? Hego Lapurdi da berriena, gorriz ageri dena, eta hor badira Donibane-Lohizune, Ziburu, Hendaia, Urruña, Sara... Gero bada beste bat Baiona, Angelu ta Miarritzek osatzen dutena. Athurri-Errobi beste bat. Gero Hazparnekoa. Bidaxuneko ere hor da. Udalak batzen dira, interes ekonomiko bat badute, legeak sortu dira udalak beste udalekin egitura bat sortzera bultzatzeko. Horretarako diru laguntzak badituzte lehenbiziko urteetan, eta geroz eta gauza gehiago kudeatzen dute elkarrekin. Horrek badu bere interesa, zeren eta, adibidez, aktibitate ekonomikorako zonalde bat sortu nahi baldin bada, askotan herri txiki batek ez baitu aurrekonturik horrelako zerbait bultzatzeko. Baina herri elkargoaren bidez elkartuz, posible dute. Herri elkargoak helburu horrekin egin zituzten, alegia, herriak geroz eta txikiagoak direnez eta aukera ekonomiko handirik ez dutenez, elkartuta aurrera egin dezakete.

Etorkizuna horretara doa. Udalek geroz eta pisu gutxiago izango dute eta herri elkargoek geroz eta handiagoa. Herri elkargoetako ordezkariak ez dira hauteskunde bidez aukeratzeko. Udal bakoitzetik ordezkari bat edo bi joaten dira. Beti da sistema hori. Botere guztiak eginak dira irabazleek soilik gobernatzeko. Eta ez baduzu irabazi, ez duzu parte hartzen botere guneetan.

### Frantziaren politika

Nahi nuen aipatu Frantziaren politika Ipar Euskal Herriari begira. Badakizue Ipar Euskal Herrian hainbat aldarrikapen badirela, gatazka politiko bat badela han ere, lurraldetasuna eskatzen dela. Frantziak zer egin du hori estaltzeko? Egitura batzuk sortu ditu: Garapen Kontseilua, Hautetsien Kontseilua. Garapen Kontseiluan eragile sozio-politiko-kulturalak biltzen dira. Gogoetak egin eta ekintzak antolatzen dituzte. Eta Hautetsien Kontseilua dago haien gogoetak onartzeko. Hautetsien Kontseiluan biltzen dira udaletako

hautetsiak, diputatuak, kontseilari nagusiak... Edozein egituretako hautetsiak biltzen dira baina ez dute aurrekonturik, ezta botererik ere ezer egiteko. Proiektua landu eta kito. Frantziak hitzarmen bat egin zuen proiektu batzuk laguntzeko baina bere mugak badituzte. Departamenduaren aurkakoen argumentu bat bihurtu dira bi egitura horiek, erranez gogoetak eta hitzarmenak egiten direla, eta horrela onartua dela Ipar Euskal Herriaren berezitasuna.

### Galderak

*Berak aipatu ditu erakunde bereziak daudela udalen azpitik. Hori Ipar Euskal Herriko berezitasuna da edo estatu osoan daude?*

**Eneko Bidegain:** Auzapezen biltzarra ez dut aipatu. Urtean behin biltzen dira. Orain ez zaio horrela deitzen, udalen biltzarra baizik. Udaletxe guzietako ordezkariak biltzen dira bertan, baina ez du botererik. Hori bai da Ipar Euskal Herriko berezitasuna.

*Departamentu denek eskumen berdinak dituzte estatu osoan? Irletakoek ere?*

**E. B.:** Ez, Irletakoek ez. Irletakoek estatutu berezia dute. Frantziak askoz politika ausartagoa izan da Korsika, Polinesia eta Kaledonia Berriarekin. Autonomia maila handiagoa dute. Aldakorra da. Batzuk independentziarantz doaz. Aldiz, metropolioa deitzen den lurralde kontinentalean ez dute inongo autonomiarik.

*Kontseilu nagusian esan duzu 21 kontseilari daudela Ipar Euskal Herrikoak, eta Erregioko eskualde kontseiluan 7. Zenbat dira abertzaleak?*

**E. B.:** Kontseilu nagusian abertzale bat. Logikoa da, bozen ehuneko 50 lortu behar dela kontuan hartuta. Eskualde kontseiluan ez dago hautetsi abertzalerik. Zerrenda aurkezten da departamentu osoan. Lehen itzuli batera jokatzeko zen, eta askoz demokratikoagoa zen, zeren eta emaitzen arabera banatzen baitziren aulkiak. Ehuneko 10 lortzen bazen, aulki bat lortzen zen. Eta abertzaleek %14 ateratu zuten Ipar Euskal Herrian, duela bost urte. Nahiz eta Ipar Euskal Herriko emaitzen arabera hautetsi baten eskubidea izan, nola Pirinio Atlantikoan erabat itoa zen, bada ez zen ateratu hautetsirik.

Senatuko hauteskundeetan ere berdina gertatzen da. Departamenduaren aldekoek hautagaitza bat aurkeztu zuten, baina departamentu osoan gertatzen dira hauteskundeak. Beraz Ipar Euskal Herrikoak pixka bat zigortuta geratzen dira.

Akitanian parte hartzeko zerrenda oso bat aurkeztu behar da, alegia, 85 hautagai. Abertzaleek ez dute aukerarik.

*Abertzaleek kasu onenetan %14 dute. Etorkizunera begira? Esan dezakegu iparraldean 4 talde abertzale daudela ezta? Hiru hegoaldeetik exportatuak eta bestea hangoa.*

E. B.: Hauteskunde batetik bestera aldatu egiten dira. Azkenaldian zatiketaren ondorioak hauteskundeetan antzeman dira. Zatiketa mingarria izan zen Ipar Euskal Herrian. Abertzaleen Batasunean zatiketa egon zen eta Batasuna sortu zen, eta horrek eragina izan zuen. Adibidez kantonamendu batean EA, Batasuna eta ABko hautagaiak baziren. Hiru hautagai abertzale aurkeztu ziren kantonamendu batean. EAjk ere aurkezten ditu hautagaiak, baina hauteskundetik hauteskundera aldatu egiten dira. Batean egiten dira koalizioak, hurrengoan ez, hurrengoan bai... Kontestu politikoak ere aldatzen dira.

*Orain kanpaina batean ari zarete. Batera plataformak bultzatuta, 46.000 sinadura biltzea helburu, erreferenduma edo kontsulta egiteko departamentu propioa egiteko. Nola ikusten duzu sortu den giroa?*

E. B.: Interesgarria da, baina erronka zaila dudarik gabe. Baina arriskurik hartu gabe ez da aintzina joaten, eta momentu batean arrisku batzuk hartu behar dira. Aukera izan daiteke nahiz eta zaila izan. Orain arte prentsan ez dugu asko entzun baina bada dinamika bat. Izenpetzeko aukerak eskaintzen dira, eta sei hilabeteko epean hori lortzeko itxaropena badut. Ez dut apustu bat egingo baina itxaropena badut. Beharrezkoa dela eta erronka hori lortzea posible dela uste dut. Eta lortuz gero, fase politiko interesgarri batean sar gaitzke. Zaila da, zeren eta jadanik hasi dira erraten Pirineo Atlantikoetan: "Ez, ez, ez da gure eskumena erreferenduma antolatzea. Edo erreferendum horretan pausatzen den galdera ez dagokio gure eskumen bati, beraz ez dugu erreferenduma antolatzerik. Nahi baduzue sinadura eskatu baina..."

46.000 sinadura bilduz gero departamentuaren inguruan erreferenduma egiteko eskatzeko, Pauek edo Pariseko gobernuak aitzaki administratiboa baina zerbait gehiago beharko du jarri erreferenduma ukatzeko, zeren eta kontsulta bat antolatzeko eskubidea baitauka.

*Kazetari bezala galdetu nahi nioke: Su etenaren kontua nola bizi dute eragile politikoek Ipar Euskal Herrian?*

**E. B.:** Eragile inportanteek pozez, baina kanpoko zerbait bezala. Ez omen dagokie eurei. Diote: "Guk lagunduko dugu baina ez dugu interferentziarik egingen."





MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA